

**8.- ZERGA ORDENANTZA, TELEFONIA MUGIKORREKO ZERBITZUAK EMATEN
DITUZTEN ENPRESEI UDAL JABARI PUBLIKOA ERA PRIBATIBOAN ERABILI ETA
BEREZIKI USTIATZEAGATIKO TASAK EZARTZEA ARAUTZEN DUENA**

**8.- ORDENANZA FISCAL REGULADORA DE LAS TASAS POR LA UTILIZACIÓN
PRIVATIVA Y EL APROVECHAMIENTO ESPECIAL DEL DOMINIO PÚBLICO
MUNICIPAL A FAVOR DE LAS EMPRESAS QUE PRESTAN SERVICIOS DE
TELEFONÍA MÓVIL**

1. Artikulua. Foru Araudia

Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauan xedatutakoaren arabera, tasak arautu dira eta exijitu dakizkieke telefonia mugikorreko zerbitzuak ematen dituzten enpresei, udal jabari publikoko lurzorua, zorupea edo hegalak era pribatiboan eta bereziki ustiatzeagatik.

2. Artikulua. Zergapeko egitatea

1. Tasa horien zergapeko egitatea da telefonia mugikorreko zerbitzuak emateko udal jabari publikoko lurzorua, zorupea edo hegalak era pribatiboan erabiltzea eta bereziki ustiatzea.

Joko da erabilera pribatiboa eta ustiapen berezia hasiko dela zerbitzua eskatzen duten pertsonen ematen hasten den unean.

2. Jabari publikoaren ustiapen berezia dela esango da, zerbitzua emateko antenak, instalazioak edo sareak jartzen badira, halakoak udalaren bide publikoetako zoruan, zorupean edo hegaletan jartzen direnean. Ez da kontuan izango nor den bide publikoen titularra.

3. Tasa horiek ez dute zerikusirik izango hirigintza lizentzia emateagatik tasekin, ez eta honako obra hauek ekarriko dituztenekin ere: udal jabari publikoa lurzoruan, zorupean edo hegaletan erabiltzeko edo ustiatzeko lehenengo instalazioa eraikitzeak, egikaritzeak, haren osagarriak egiteak, mantentzeak edo eraistek; edo zerbitzuen sareak jartzeko Udalak prestatutako edo berariaz jarritako azpiegituren erabilera lagatzeak.

Artículo 1º Normativa Foral

De conformidad con lo dispuesto en la Norma Foral 11/1989 de 5 de julio, reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, se regulan y exigen tasas por la utilización privativa y el aprovechamiento especial del suelo, subsuelo o vuelo del dominio público municipal, a favor de las empresas que prestan servicios de telefonía móvil.

Artículo 2º Hecho imponible

1. Constituye el hecho imponible de estas tasas, la utilización privativa y el aprovechamiento especial del suelo, subsuelo o vuelo del dominio público municipal, para prestar servicios de telefonía móvil.

Se entiende que se inicia la utilización privativa y el aprovechamiento especial, en el momento en que se inicia la prestación del servicio a las personas que lo solicitan.

2. El aprovechamiento especial del dominio público se producirá siempre que para la prestación del servicio se deban utilizar antenas, instalaciones o redes que materialmente ocupan el suelo, subsuelo o vuelo de las vías públicas municipales con independencia de quien sea el titular de aquéllas.

3. Estas tasas son independientes de las tasas por el otorgamiento de licencia urbanística, y obras que corresponda por la construcción, ejecución, complemento, conservación, derribo de la 1ª instalación para la utilización o aprovechamiento del dominio público municipal, en el suelo, subsuelo, o vuelo, o por la cesión de uso de infraestructuras específicamente destinadas o habilitadas por el Ayuntamiento para alojar redes de servicios.

3. Artikulua. Sortzapena eta zergaldia

1. Tasak sortuko dira telefonia mugikorreko zerbitzuak emateko udal jabari publikoko lurzoria, zorupea edo hegalak era pribatiboan erabiltzen eta bereziki ustiatzen hasten direnean.
2. Udal jabari publikoa aldiaren behin erabiltzen bada era pribatiboan edo ustiatzen bada bereziki, tasa urte bakoitzeko urtarilaren lehen sortuko da, eta zergaldiak urte naturala hartuko du.
3. Gune horiek erabiltzen edo ustiatzen hasi baino ez bada egin, urtea bukatzeko falta diren hiru hilekoei eta hilei dagokien kuota likidatuko da (altari dagokion hila barne).
4. Jarduera uzten bada, urtea hasi denetik igaro diren hiru hilekoei eta hilei dagokien kuota likidatuko da (jarduera utzi den hila barne).

4. Artikulua. Subjektu pasiboak

1. Tasen subjektu pasibo izango dira auzo osoan edo auzoaren zati handi batean eragina duten telefonia mugikorreko zerbitzuak ematen dituzten enpresak edo enpresa-ustiatzaileak, bai sareen titular badira, bai sare horiek erabiltzeko, haietarako sarbidea izateko edo elkarri lotzeko eskubidearen titular baino ez badira.
2. Udalerriaren barruan emantzat joko dira, beren izaera dela eta, udal jabari publikoko lurzoria, zorupea edo hegalean ustiatzen diren mende dauden edo harekin zerikusia duten zerbitzu guztiak.

5. Artikulua. Erantzuleak

Subjektu pasiboaren zerga bete beharrei era solidarioan edo ordezkatzailan erantzun beharko diete Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorreko 35. artikulutik 43. artikulura bitartean aipatutako pertsona fisiko edo juridikoek.

Artículo 3º Devengo y Período impositivo

1. Las tasas se devengan cuando se inicia la utilización privativa y el aprovechamiento especial del suelo, subsuelo o vuelo del dominio público municipal, para prestar servicios de telefonía móvil.
2. Cuando la utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público municipal, se efectúe de forma periódica, el devengo de la tasa tendrá lugar el 1 de enero de cada año, y el período impositivo, comprenderá el año natural.
3. En el supuesto de inicio en la utilización o en el aprovechamiento, se liquidará la cuota correspondiente a los trimestres y meses que resten para finalizar el año, incluido el correspondiente al alta.
4. En el supuesto de cese de actividad, se liquidará la cuota correspondiente a los trimestres y meses transcurridos desde el inicio del año, incluido el correspondiente al cese.

Artículo 4º Sujetos pasivos

1. Son sujetos pasivos de las tasas, las empresas explotadoras o prestadoras de servicios de telefonía móvil que afecten a la generalidad o a una parte importante del vecindario, tanto si son titulares de las redes, como si solamente son titulares de derechos de uso, de acceso o de interconexión de las mismas.
2. Se consideran prestados dentro del término municipal todos los servicios, que por su naturaleza, dependan del aprovechamiento del suelo, subsuelo o vuelo del dominio público municipal o estén en relación con él.

Artículo 5º Responsables

Responderán solidaria o subsidiariamente de las obligaciones tributarias del sujeto pasivo las personas físicas o jurídicas a las que se refieren los artículos 35 a 43 de la Norma Foral General Tributaria de Gipuzkoa.

6. Artikulua. Zerga kuota

1. Telefonia mugikorreko zerbitzuekin erabilera pribatiboa edo ustiapen berezia egiteagatikotasen zenbatekoa zehazteko, honako parametro hauek aintzat hartuko dira:

- a) Urteko oinarritzko tarifa.
- b) Erabilera pribatiboaren edo ustiapen bereziaren iraupena.
- c) Operadore bakoitzari ezar dakioken koefiziente espezifikoa, merkatuan duen kuotaren arabera.

2. Zerga kuota = OT x I x KE

Non,

OT: urteko oinarritzko tarifa.

I: erabilera pribatiboaren edo ustiapen bereziaren iraupena; urteetan edo urteko hiruhilekotan adierazten da (1; 0,25; 0,50; 0,75 eta abar, kontuan izanik ea urte osoa den edo 1., 2. edo 3. hiruhilekoa den, hurrenez hurren).

KE: koefiziente espezifikoa, operadore bakoitzari ezar dakioketena, kasuan kasuko udalerrian duen merkatu kuotaren arabera.

3. Oinarritzko tarifa eranskinean zehaztu da.

4. Operadore bakoitzari ezar dakioketena koefiziente espezifikoa zein den jakiteko, abiapuntu hartuko da udalerririk horretan dagokion telefonia mugikorraren merkatu kuota osoa, ondoren ordaintzeko edo aldezturik ordaintzeko modalitate guztiak barne.

7. Artikulua. Tasaren kudeaketa

1. Erabilera pribatiboaren edo ustiapen bereziaren iraupena kalkulatzeko, eta operadore bakoitzari ezar dakioketena koefiziente espezifikoa zein den jakiteko, subjektu pasiboek honako bi agiri hauek aurkeztu beharko dituzte, urte bakoitzeko urtarrilaren 30a baino lehen: udal jabaria ustiatzen hasi zen eguna adierazten duen egiaztagiria; eta udalerrian subjektu pasiboak zenbat erabiltzailerentzat lan egiten duen erakusten duen egiaztagiria. Ondoren ordaintzeko

Artículo 6º Cuota tributaria

1. Para determinar la cuantía de las tasas por la utilización privativa o el aprovechamiento especial con los servicios de telefonía móvil, se tendrán en cuenta los siguientes parámetros:

- a) La tarifa básica por año.
- b) El tiempo de duración de la utilización privativa o aprovechamiento especial.
- c) El coeficiente específico atribuible a cada operador en función de su cuota de mercado.

2. Cuota tributaria = TB x T x CE

Donde,

□TB: es la tarifa básica por año.

□T: es el tiempo de duración de la utilización privativa o aprovechamiento especial, expresado en años o fracción trimestral del año (1; 0,25; 0,50; 0,75 según se trate de todo el año o de 1, 2, 3 trimestres respectivamente).

CE: es el coeficiente específico atribuible a cada operador según su cuota de mercado en este término municipal.

3. La tarifa básica se establece en el Anexo.

4. El coeficiente específico atribuible a cada operador se obtendrá a partir de la cuota total de mercado de telefonía móvil que le corresponde en este término municipal, incluyendo todas las modalidades de pago posterior o de pago previo.

Artículo 7º Gestión de la tasa

1. Para calcular el tiempo de duración de la utilización privativa o aprovechamiento especial y el coeficiente específico atribuible a cada operador, los sujetos pasivos deberán presentar antes del 30 de enero de cada año, una declaración acreditativa de la fecha de inicio del aprovechamiento del dominio municipal, y del número de usuarios para los que el sujeto pasivo opere en el término municipal, que incluirá tanto los servicios de pago

edo aldez aurretik ordaintzeko zerbitzuak ere jasoko dira egiaztagirian.

2. Interesdunek ez badute adierazpenik egiten horretarako jarritako epean, Udalak eskumena izango du tasa kuantifikatzeko, udalerrian operadore bakoitzak dituen merkatu kuoten arabera.

3. Obligaziodunak datuak ez dituela baieztatu egiaztatzen denean, Udalak aplikatu ahalko ditu Telekomunikazioen Merkatuko Batzordeak argitaratutako azken urteko txostenean jasota izango diren operadore bakoitzaren datuak, udalerriak bereziak, txostenean agertzen baldin badira; edo kasuan kasuko autonomia erkidegoak edo, bestela, Estatuak, gehitutakoak.

8. Artikulua. Tasa ordaintzea

1. Udalak likidazioak egingo ditu hiru hilez behin, bai eta urte bakoitzeko behin betiko likidazioa ere.

2. Tasak ordaindu beharko dira behin betiko likidazioaren kontura egingo diren hiru hilez behingo likidazioen arabera.

3. Hiru hilez behingo likidazioen zenbatekoa izango da zerga kuotaren emaitza izango den guztizko zenbatekoaren % 25. Zerga kuota ezarritako parametroen arabera kalkulatu da, eta aurreko urtekoari dagokiona izango da.

4. Udalak likidazioen berri emango die subjektu pasiboek, dituzten zerga zorrak ordain ditzaten ordaintzeko borondatezko aldian, honako mugaegun hauek baino lehen: urte bakoitzeko martxoaren 31, ekainaren 30a, irailaren 30a eta abenduaren 31a.

5. Behin betiko likidazioa sartu beharko da kasuan kasuko urtearen ondorengo lehendabiziko hiruhilekoan. Zenbateko osoa zehaztuko da zerga kuotaren emaitza izango den zenbatekoaren arabera. Zerga kuota ezarritako parametroei jarraikiz kalkulatu da, eta aurreko urteari dagokiona izango da.

posterior o de pago previo.

2. La falta de declaración de los interesados dentro del plazo fijado facultará al Ayuntamiento para cuantificar la tasa, en función de las respectivas cuotas de mercado de cada operador en el municipio.

3. Una vez verificado que el obligado no acredita los datos, el Ayuntamiento podrá aplicar los datos que resulten para cada operador, del último informe anual publicado por la Comisión del Mercado de Telecomunicaciones desagregados por el municipio si constan en él, o los agregados por la Comunidad autónoma a la que se pertenece o por el conjunto nacional total en su defecto.

Artículo 8º Pago de la tasa

1. El Ayuntamiento practicará liquidaciones trimestrales y la liquidación definitiva de cada año.

2. El pago de las tasas deberá efectuarse de acuerdo con las liquidaciones trimestrales, practicadas a cuenta de la liquidación definitiva.

3. El importe de las liquidaciones trimestrales, equivaldrá al 25% del importe total resultante de la cuota tributaria, calculada conforme a los parámetros fijados, y referida al año inmediatamente anterior.

4. El Ayuntamiento notificará las liquidaciones a los sujetos pasivos con el fin de que hagan efectivas sus deudas tributarias en el periodo voluntario de pago, en los siguientes plazos de vencimiento: 31 de marzo, 30 de Junio, 30 de Septiembre, y 31 de Diciembre, de cada año.

5. La liquidación definitiva deberá ser ingresada dentro del primer trimestre siguiente al año al que se refiere. El importe total se determinará por la cuantía resultante de la cuota tributaria calculada conforme a los parámetros fijados, referida al año inmediato anterior.

6. Sartu beharko den zenbatekoa izango da zenbateko horren eta ekitaldi berari lotuta egingo diren konturako sarreren arteko aldea. Saldoa negatiboa bada, Udalarari ordaindutako gehiegizkoa konpentsatu beharko da kontura egingo den lehenengo ordainketan eta hurrengoetan.

7. Erabilera pribatiboak eta ustiapen bereziak kalteak eragiten baditu udal jabari publikoko ondasunetan, Udalak eskatuko du ordain dadila kalteak konpontzeko egoki joko duen diru kopurua. Hori ordainduta ere, berdin-berdin ordaindu beharko da tasa.

8. Erabilera pribatiboak edo ustiapen bereziak jabari publikoa suntsitu edo hondatu badu, onuraduna behartuta izango da kaltetutakoa berregiteko edo konpontzeko gastuen kostu osoa itzultzera. Hala eginda ere, berdin-berdin ordaindu beharko du tasa, eta Ingurumen Erantzukizunari buruzko 26/2007 Legeak dakartzan erantzukizunei erantzun beharko die erantzukizunik badu. Dena den, Udalarari kalte ordaina emango zaio, ondasunak lehengoratu edo konponduta. Kalteak konponezinak badira, berriz, hondatutako ondasunaren balioaren ordaina emango zaio.

9. Artikulua: Oro har aplikatzeko arauak

Tasa horiei aplikagarri zaizkie kudeaketari, aplikazioari, likidazioari, ikuskatzeari, zerga bilketari, arau hausteei eta zigorrei buruzko arauak, honako araudi hauetan xedatuak: Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrean, Gipuzkoako Dirubilketa Erregelamenduan, Administrazio Bidean Berraztertzekeo Gipuzkoako Erregelamenduan, Zerga Ikuskapenaren Araudian, eta indarrean diren gainerako araudietan.

Azken xedapena

Ordenantza hau eta eranskina, behin Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta gero, indarrean sartuko dira 2018ko urtarrilaren 1ean, eta indarrean izango dira ordenantza eta eranskina indargabetzea edo aldatzea erabakitzen den arte.

6. El importe que deberá ingresarse, corresponde a la diferencia entre ese importe y los ingresos a cuenta efectuados en relación al mismo ejercicio. En el caso de que haya saldo negativo, el exceso satisfecho al Ayuntamiento deberá ser compensado en el primer pago a cuenta o en los sucesivos.

7. Cuando la utilización y el aprovechamiento pueda ocasionar daños a los bienes de dominio público municipal, el Ayuntamiento exigirá el depósito de las cantidades que estime convenientes para cubrir los daños, sin perjuicio del pago de la tasa.

8. Cuando la utilización privativa o el aprovechamiento especial lleve aparejada la destrucción o deterioro del dominio público, el beneficiario, sin perjuicio del pago de la tasa, estará obligado al reintegro del coste total de los gastos de reconstrucción o reparación, independientemente de las responsabilidades en que pueda incurrir en aplicación de la Ley 26/2007, de 23 de octubre, de Responsabilidad Medioambiental. En todo caso, el Ayuntamiento será indemnizado con la restitución o la reparación de los bienes o su valor si los daños fueran irreparables.

Artículo 9º Normas de aplicación general

Las normas sobre gestión, aplicación, liquidación, inspección, recaudación, infracciones y sanciones, establecidos en la Norma Foral General Tributaria de Gipuzkoa, Reglamento de Recaudación de Gipuzkoa, Reglamento de Revisión en Vía Administrativa de Gipuzkoa, y Reglamento de Inspección tributaria y demás normativa vigente, son de aplicación a estas tasas.

Disposición final

La presente Ordenanza y su Anexo, una vez publicado su texto en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, entrarán en vigor a partir del 1 de enero de 2018, y se mantendrán en vigor mientras no se acuerde su derogación o modificación.

I. ERANSKINA – OINARRIZKO TARIFA

ANEXO I – TARIFA BÁSICA

| | | | |
|---|-----------------------|---|-----------------------|
| <p>Oinarrizko Tarifa Telefonía mugikorreko operadore guztien artean banatua, ustiapen berezia irauten duen denboraren eta operadore bakoitzari bere merkatu kuota oinarriztat hartuta aplikatzekoa zaion koefiziente espezifikokoaren arabera</p> | <p>318.027,80.- €</p> | <p>Tarifa básica distribuida entre los distintos operadores de telefonía móvil en función del tiempo de duración del aprovechamiento especial y el coeficiente atribuible a cada operador en función de su cuota de mercado</p> | <p>318.027,80.- €</p> |
|---|-----------------------|---|-----------------------|